

TAXOARETIK

■ Asier Legarda-ereño

Lotinaren lanaren emaitzak

Osasunak jaitsierako postuetatik irte-tea lortu du aspaldiko partez —heme-zortzigarren jardunaldiaz gerotik azken hiru postuetan izan dira nafarrak—, eta Iruñean itxaropena zabaldu da behintzat.

Miguel Angel Lotinak argi azaldu zuen astelehenean: «Egoera ez da asko aldatu, azken postuan den taldeak baino puntu bakar bat gehiago baitugu soi-

lik». Baina, era berean, gorritxoei San Mamesen lortutako garaipenak psikologikoki mesede handia egingo diela onartu zuen entrenatzaile meñakarrak, batik bat «Nafarroako zein Madrilgo komunikabideetatik kritika onak jaso ahal izango ditugulako».

Eta, ohi bezala, ez zitzaion arrazoirik falta meñakarrari. Espainia osoan gehien ikusten den futbol saioan ere



MIKEL SAIZ

Lotina, Taxoaren, penalti bat jaurtitzen.

tarte berezia eskaini zioten astelehen iluntzean Osasunak San Mamesen egitako partiduari. Eta partida taktikoki aztertzean, egun kazetari lanak egiten dituen Osasunako jokalarik ohi ingelesak Lotinari hamarra eman zion. Osasunaren inguruko liskar eta polemikez gain, Espainia aldean ere bazen meñakarraren lana azpimarratzeko garaia. Oraindik bidea luzea da, eta balantzeak egiteko ordua ez da, baina hain material gutxi izanik lana hain txukun egiten duen behargin asko ez da futbolaren munduan. Eskerrik asko, Lotina.

BITTOR ALKIZA ATHLETICEKO ERDILARIA

Milurteko lehenengo denboraldia berezia izaten ari da Bittor Alkizarentzat. Lehen itzuli osoan ez zuen ia jokatzeko aukerarik izan eta Athletic uzteko zorian izan zen. Egun, oster, lekua lortu du hasierako hamaikakoan eta partidu guztiak jokatzeko ari da

«Urte asko daramat Lehen Mailan, eta apurka-apurka erre egiten zara»

Ramon Basaldua | BILBO

Hogeita hamar urte ditu eta zazpi denboraldi daramatza Athleticen. Bittor Alkiza talde zuri-gorriaren zutabe nagusietako bat bilakatu da.

■ Denboraldi arraroa da zuretzat, ezta?

Arraroa eta berezia. Nik bane-kien behatzean ebakuntza egin ostean gogorra izango zela berriz taldera itzultzea, lesioa gaiztoa zelako. Poliki-poliki hartu nuen eta uste baino lehenago osatu nintzen. Taldean sartzea, berriz, asko kostatu izan zait. Horrexegatik agian arraroa izan dela esan dezaket. Aurreko lau denboraldietan ia partidu guztiak jokatu ditut eta aurten lehenengo itzulian ikusten nuen ez nuela aukera askorik eta denbora pasatzen ari zela. Orain ez ditut 23 urte. Gero eta gertuago daukat futbola uzteko garaia eta gauzei beste era batera begiratzeko diezu.

■ Eta Paris Saint Germainera joateko aukera izan zenuen.

Athletic utzi eta beste talde batera joateko aukera iritsi zitzaidan. Hemen oso zaila ikusten nuen jokatzeko eta eskaintza horrek jokatzeko aukera ematen zidan. Nik beti esan dut hemen gustura nagoela eta nire burua ondo ikusten dudala. Baina, noski, lehenengo itzulian ez diot ezer eman taldeari. Nik ez dut balio dirua jaso eta etxera joateko. Nik jokatu egin behar dut, eta, beti jokatzeko ez badut ere, gehiago sartu behar naiz taldean. Lagundu egin behar dut. Ni gustura nago hemen eta zerbait



RAMON BASALDUA

GAUZAK AZTERTZEKO IKUSPUNTUA

«Gero eta gertuago daukat futbola utzi beharko dudana eguna, eta adin honetan gauzak ez dira 23 urterekin bezala ikusten»

JOSE MARIA ARRATE

«Presidente gizon serioa da eta bere hitza betetzen du. Nik pertsona bati ezin diot gehiago eskatu eta Arraterekin horrela izan da»

eskaintzeko gauza naizela ikusten badut ondo. Horrela izango ez balitz neuk hartuko nuke taldea uzteko erabakia.

■ Nola aldatzen diren gauzak, ezta? Orain hasieratik jokatzeko ari zara.

Futbola bizitza bezalakoa da. Gauzak etengabe aldatzen dira. Nik garbi daukat inoiz ez dudala amore emango. Beti bezala segitu dut entrenatzen eta aukera

izan dudanean aprobetxatzen saiatu naiz. Gainera, zortea izan dut, gauzak ondo ateratzen zitzaidalako. Betiko jokalaria naiz. Ez dut ezer aldatu.

■ Zelan Txetxu Rojo entrenatzailearekin?

Ondo.

■ Eta zelan ikusten dituzu gauzak 30 urterekin?

Urte asko daramatza Lehen Mailan eta pixkanaka-pixkanaka erre egiten zara. Gainera, halako gauzak ikustean azterketa egiten duzu. Agian Athleticentzat ona izango zen nik beste talde batera alde egitea, klubak dirua jasoko zuelako eta jokalarik gazteentzako lekua utziko nuelako. Nik badakit egun batean hori iritsiko dela. Horretan ez dut arazorik. Nire ordua iristen denean etxerako bidea hartu beharko dut.

■ Zure denboraldia taldearena bezain arraroa da.

Halaxe da. Batez ere etxetik kanpo puntu gutxi lortu ditugulako. San Mamesen emaitza onak lortu ditugu eta zenbait partidutan nahiko ondo jokatu ere. Etxetik kanpo oster, kontrako gertatu zaigu.

■ Arratek ekarri zintuen Athleticera eta ekainean utzi egingo du taldea.

Gizon jatorra eta zuzena da. Inoiz nik arazoren bat sortu diodanean bera zuzen etorri da niregana eta gauzak oso argi esan dizkit. Gizon serioa da eta bere hitza betetzen du. Nik pertsona bati ezin diot gehiago eskatu. Niretzat, horixe da garrantzitsua eta Jose Mari Arraterekin halaxe izan da. Pertsona bezala, primerako morroia da.

■ Espainiako Liga azken txanpan sartu da eta Athletic ez daki gora ala behera begiratu behar duen.

UEFA jokatzeko aukera ematen duten postuetako bat lortzea zaila izango da. Igandean galdu izana atzerapausoa izan da guretzat, baina ezin dugu amore eman. Partiduz partidu joan behar dugu eta ikusiko dugu non amaitzen dugun.